

## Pórtico

---

Siguiendo la trayectoria que desde sus inicios emprendió el *Anuario de Eusko-Folklore* se recogen en el presente número resultados obtenidos mediante la investigación de campo. La constatación de los hechos es la tarea primordial en el quehacer etnográfico y esta constatación rigurosa se ha de encuadrar en el contexto tanto geográfico como cronológico, en las que tales hechos tienen lugar. Solamente así se podrá llegar a comprender su significado cultural.

Las aportaciones de Juan Cruz Labeaga (2ª parte) y de Rosa María Ardanza, versan ambas sobre el modo de vida agrícola; pero provienen de dos localidades, Viana en Navarra y Abadiño en Bizkaia, muy diferentes entre sí tanto por su clima como por sus cultivos y por el régimen de explotación de la tierra.

Michel Duvert que ha publicado recientemente una extensa monografía etnográfica sobre la Villa de Ainhoa nos ofrece en este artículo un elenco de los oficios y de las labores artesanales que entretrejan hasta hace bien poco las diversas actividades de esta localidad de Baja Navarra.

El regreso del lobo a las montañas de Vasconia es un hecho reciente que ha perturbado en gran medida el pastoreo tradicional. Las repercusiones de esta irrupción son estudiadas y analizadas por Jesús María Garayo en su documentado trabajo.

Carlos Ortiz de Zarate anota un tema de saberes populares atribuidos en el valle alavés de Cuartango a un personaje legendario denominado "la vieja de Arriano".

María Amor Beguiristain emplea para su investigación de campo la transcripción directa de testimonios recogidos de boca de una persona cuya vida ha transcurrido en la cuenca de Pamplona. Estos testimonios, de indudable valor por su autenticidad, se ofrecen anotados y contextualizados.

Los dos últimos trabajos de este número del *Anuario* se deben a Beatriz Gallego y Cristina Llanos, alumnas en los años 2008 y 2009 respectivamente, de los cursos de Etnografía Vasca impartidos on-line por los investigadores que trabajan en el proyecto Etniker. Ambos trabajos de campo se ofrecen aquí como una promesa de nuevas aportaciones futuras en el campo de la etnografía vasca.

Ander Manterola

## Ataria

---

*Eusko-Folklore Urtekariak* hasiera-hasieratik izan duen bideari jarraituz, zenbaki honetan landa-lanean oinarritutako ikerketaren bitartez lortutako emaitzak daude jasota. Gertaerak egiaztatzea lehentasuneko zeregina da egiteko etnografikoan, eta egiaztapen zorrotz hori aipatutako gertaeren testuinguru geografiko zein kronologikoaren barruan sartu behar da. Izan ere, horrela baino ezin izango da ulertu gertaerok daukaten kultur esanahia.

Juan Cruz Labeagaren (2. zatia) eta Rosa María Ardanzaren ekarpenak nekarizaritza-bizimoduari buruzkoak dira; hala ere, elkarren artean oso bestelakoak diren bi herritakoak dira, Nafarroako Vianakoa, bata, eta Bizkaiko Abadiñokoa, bestea. Bi herri horiek desberdinak dira, bai klima dela-eta, bai bertako laboreengatik eta lurraren ustiapen erregimenagatik.

Ainhoari buruzko monografia etnografiko oparoa argitaratu berri duen Michel Duvertek duela gutxira arte Nafarroa Behereko herri honetako jardueran nagusi ziren lanbide eta artisau-lanen zerrenda eskaintzen digu artikulu honetan.

Otsoa orain dela gutxi itzuli da berriro Euskal Herrira, eta, neurri handi batean, nabarmen asaldatu du ohiko artzaintza. Hain zuzen ere, agerpen horren ondorioak ikertu eta aztertu ditu Jesús María Garayok, bere lan dokumentatuan.

Carlos Ortiz de Zaratek Arabako Koartango haranean "Arrianoko atsoa" ize-nez ezagututako pertsonaia legendarioari egotzitako jakintza herrikoiak izan ditu aztergai.

María Amor Beguiristainek, berriz, Iruñerrian bizi izan den pertsona baten ahotik bildutako lekukotasunen transkribapen zuzena erabili du landa-ikerketan. Lekukotasunak oso baliotsuak dira, darien benetakotasunagatik; gainera, oharrekin nahiz testu bidez egiaztatuta aurkezten dira.

*Urtekariaren* zenbaki honetako azken bi lanak Beatriz Gallego eta Cristina Llanosenak dira; hain zuzen ere, biak ala biak izan dira Etniker proiektuan lan egiten duten ikertzaileek on-line emandako Euskal Etnografiari buruzko ikastaroetako ikasleak, 2008an eta 2009an, hurrenez hurren. Bi landa-lan hauek euskal etnografiaren arloan etorkizuneko ekarpen berrien agintzari legez eskaintzen dira.

Ander Manterola